

## Telebista eta bideoa aparatu berean

**T**elebideo izeneko aparatuak telebista eta magnetoskopia ditu berekin. Japonian izugarri ari dira saltzen (milioi bat jadanik saldua omen dute). Europan Sony eta Bang & Olufsen markakoak daude salgai eta Philips etxea bere 21 PT 351A eredua orain-txe ateratzekoa da.

Telebista eta magnetoskopiaoren arteko kablerik ez dute izango eta aginte bakarraz kontrolatuko dira.



Telebista eta magnetoskopiaoren arteko kablerik ez dute izango, beraz, eta aginte bakarraz kontrolatuko dira elkar-tutako bi aparatuak.

## Bizikleta elektrikoa

**B**izikletaz bide bera ibiliz, oinez baino errazago joaten da, baina hala ere pedalei eragin egin behar



Pedalei beste edozein bizikletatan bezalaxe eragiten zaie, baina bateria eta motore elektrikoa ditu laguntzeko.

zaie eta azkenean gainean doana nekatu egiten da (aldapan gora joan behar badu, batez ere). Horregatik udaberri honetan bizikleta elektrikoa ateratzekoak dira. Pedalei beste edozein bizikletatan bezalaxe eragiten zaie, baina bateria eta motore elektrikoa ditu laguntzeko. Beste edozein bizikletak bezalaxe ditu abiadura aldatzeko aukerak (pinoien bidez). 180.000 pta. edo 9.000 libera balioko duela eta bateriek 25 kilometroko autonomia izango dutela iragarri da. Bateria kargatzeko hiru ordu beharko dira.

## Hozkailuko soinua hobea

**M**usikazale batzuek diotenez, disko konpaktua gau batez hozkailuan edukita soinu hobea lortzen omen da. Hobekuntza, musika klasikoan rock musikan baino nabarmenagoa da dirudienez. Dena den, fenomeno hori ulertzea erraza da.


Disko konpaktuak irakurtzeko aparatu guztiek irakurketa-akatsak zuzentzeko sistema dute. Akatsa dagoenean, sistemak estrapolazioa egiten du zuzen irakurritako bi balioen artean. Disko konpaktuak hozkailuan ordu batzuk igarotzen dituenen, dirudienez irakurketa-akatsak ugaltu egiten dira pitzadurak sortzen direlako. Zuzenketa edo estrapolazioa egiten denean, soinu-seinalea leundu egiten omen da eta musika klasikoaren kalitatea hobetu. Izan ere, askotan musikaren soinua jasota bezala berdinduz ez baita kalitaterik onena lortzen.

## Quadra 610 DOS ordenadore bateragarria

**H**arrigarria badirudi ere, munduan informatikan hain ezaguna den Kaliforniako Apple etxeak

Macintosh DOS bateragarria merkaturatuko duela iragarri du.

Teknikoki, ordenadore bateragarri hau ohizko Quadra 610 eredua izango da, baina DPS (Direct Processor Slot) konektorean 486 ko-prozesadorea izango du. Erabiltzaileak bi ingurune izango ditu aldi berean eta bideo txartelak bi monitore erabili ahal izango ditu: bata Macintosh sistemarako eta bestea Windows sistemarako. Ordenadore bateragarri honek, bateragarri ez denak baino 500 dolar gehiago (70.000 pta. edo 2.500 libera gehiago) balioko du.



Urrats honen bidez, Apple etxea PC ordenadoreen mundura hurbiltzen hasi da eta egunen batean "ordenadore unibertsala" merkaturatzeko itxaropena sortu du.

Urrats honen bidez, Apple etxea PC ordenadoreen mundura hurbiltzen hasi da eta egunen batean "ordenadore unibertsala" merkaturatzeko itxaropena sortu du. Orduan "bateragarri" hitza erabili beharrik ez da izango.

